

**BILBOKO KULTURAN KONTSUMOA ZUZENEAN SUSTATZEKO BONUEN PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, BILBOKO UDALAREN BILBAO AURRERA PLANAREN BARRUAN****1.- ZIOEN AZALPENA**

Bilbao Ekintza, EPEL (aurrerantzean, Bilbao Ekintza) Bilborako ekonomia- eta gizarte-jarduera sortzea sustatzen duen udal-erakundea da; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, eta laneratzeko aukerak hobetzen ditu. Bere helburuen artean dago, halaber, hiria kultura- eta aisialdi-helmuga gisa nazioarteko turismoan kokatzea eta sustatzea, hirian aberastasuna dinamizatzen eta sortzen lagunduz.

COVID-19k sortutako osasun-krisiak aurretik genuenaz besteko errealitate bat erakutsi du, eta geldialdi bat eragin du jarduera ekonomikoan. Horren ondorioz, jarduera koordinatua egin beharra dago, osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi horren ondorioei aurre egiteko.

Bilboko Udalak, COVID-19ak eragindako egoera hori ikusirik, 2020ko maiatzaren 8an BILBAO AURRERA Plana onartu zuen, Bilboko Gizarte Kohesiorako, Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko eta Kulturarako Neurrien Plana. 15 milioi euroko aurrekontua du. Anbizio handiko plana da, eta premiazko eta larrialdiko 50 neurri baino gehiago jasotzen ditu, lehenik eta behin COVID-19k Bilboko pertsonengan eta enpresetan, batez ere kultura- eta sormen-industrietan, dituen ondorioak arintzeko eta suspertzeko eta, ondoren, berreskuratzeko.

Ekonomiaren eta enpleguaren arloko eta kultura-arloari laguntzeko neurrien barruan, BILBAO AURRERA Planak Bilbon zuzenean kontsumitzea bultzatzeko programa bat jasotzen du BILBOKO BONUen bitartez. Hain zuzen ere, eragin handiena izan dezaketen sektoreetan aplikatu nahi du.

Azaldutakoari jarraikiz, Ekintza EPELen Administrazio Kontseiluak, 2021eko uztailaren 15eko bilkuran, "BILBOKO BONUAK" erosketa-bonuen sistema arautzea helburu duen programa hau onartu du, Bilboko kultura-jarduera sustatzen laguntzeko.

**2.- PROGRAMAREN XEDEA ETA HELBURUAK**

Programa honen helburua da “BILBOKO BONUAK” bonu-sistema arautzea, herritarrek Bilboko establezimenduetan erosi dezaten bultzatzeko, eta, horri esker, udalerriko merkataritza-sektoreei suspertzen lagunduko zaie.

Hala, Bilbao Ekintzak, programaren bitartez, hirian zuzenean kontsumitzea sustatu nahi du pandemiagatik kaltetuen izan den sektoreetako batean enplegua eta ekonomia suspertzeko, Bilbo hiri bizia eta dinamikoa izan dadin.

### **3.- PERTSONA ONURADUNAK**

Programa honen onuradunak izango dira Bilboko Udalak Bilbao Ekintzaren bidez salgai jarriko dituen bonuetako bat ezarritako bitarteko eta bideen bidez eskuratzen duten 18 urtetik gorako pertsona fisikoak.

Bonuak banatuko dira NAN edo AIZ zenbaki bati lotuta; zenbaki bakoitzarekin, guztira, 10 bonu eskuratu ahaliko dira.

Bonuak erosten dituztenek bonu-mota bakoitzerako jarraian adierazitako zenbatekoa ordainduko dute, eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izango da Bilbao Ekintzak egindako ekarpena.

Herritarrek ordaindutako zenbatekoaren eta Bilbao Ekintza egindako ekarpenaren baturak zehaztuko du bonuaren balio faziala (balio osoa).

### **4.- DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK ETA BONU-MOTAK**

Bilboko kontsumo zuzeneko pizgarrien programak, BILBOKO BONUAK, Bilboko Kultura Bonua aurkezten du, bi modalitatetan banatuta, zenbatekoaren arabera.

Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira bonuei aplikatzen zaizkien hobariak, honako hauen arabera:

<b>BONU-MOTAK</b>	<b>BONUAREN PREZIOA</b>	<b>UDALAREN EKARPENA</b>	<b>BONUAREN BALIO OSOA (FAZIALA)</b>
<b>1. MOTA</b>	10,00 euro	10,00 euro	20,00 euro

<b>2. MOTA</b>	20,00 euro	20,00 euro	40,00 euro
----------------	------------	------------	------------

## 5. FINANTZAKETA

Bonuak finantzatzeko gehieneko kreditua 381.621,94 euro izango da, honela banatuta:

<b>BONU-MOTAK</b>	<b>GEHIENEO KREDITUA</b>
<b>1. MOTA</b>	228.973,16 euro
<b>2. MOTA</b>	152.648,78 euro

## 6. PROGRAMAREN INDARRALDIA

Onuradunek 2021eko urriaren 1etik 2022ko otsailaren 15era erosi ahal izango dituzte bonuak, edo haiek agortu arte, epea amaitu baino lehen agortzen badira.

Herritarrek bonuak erosi ahal izateko, kontuan hartu beharko dira, batetik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz hartzen dituen berariazko prebentzio-neurriak, eta bestetik, programaren garapen egokia baldintzatu edo horrekin lortu nahi diren helburuak hobeto lortzea eragin dezakeen beste edozein inguruabar ere.

Bestalde, gastua 2022ko martxoaren 15erako egin beharko da, eta ez dira diruz lagunduko egun horretatik aurrera egindako erosketak. Datari dagokionez, fakturan/tiketean jasotakoa beteko da, eta ez da onartuko geroagoko fakturarik.

Hala ere, Bilbao Ekintzak programaren indarraldia luzatu ahal izango du, baldin eta behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak badaude eta hala egitea komeni bada.

## 7. ESTABLEZIMENDUAK ATXIKITZEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK

### Erakunde atxikiak:

Kanpaina honi atxikitako erakundetzat jo ahal izango da kultura-sektorearen barruan enpresa-jarduera duen pertsona fisiko edo juridiko oro, baldin eta Bilbon establezimendu ireki bat badu eta agiri honen I. eranskinean zerrendatutako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigraferen batean alta emanda badago.

Salbuespen gisa, aipatutako eranskinean adierazitako beste talde eta/edo epigrafe batzuetan dauden enpresek parte hartu ahal izango dute, baldin eta Bilbao Ekintzak uste badu horien ezaugarriak eta jarduera bat datozela programa honen izaerarekin eta helburuekin.

Programa honi atxikitako erakundeak erakunde laguntzailatzat joko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, eta arau horretan dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzat aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaie.

### **Kanpainan parte hartzeko prozedura:**

Kanpainan parte hartzeko, erakundeak edo establezimenduak atxikitzea eskatu beharko du. Eskabideak, inprimaki elektronikoaren ereduaren arabera, Bilbao Ekintzak horretarako garatutako plataforma teknologiko honen bidez aurkeztu beharko dira: [www.bonobilbao.eus](http://www.bonobilbao.eus)

Atxikitzeko eskaerarekin batera, deialdi honen II. eranskinean zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Eskabide-orriak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat badu edo osagabeak badira, erakunde interesdunei bost egun balioduneko epea emango zaie antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan akatsik egin ez badute, eskaeran atzera egin dutela iritziko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako eran emango den ebazpenaren ondoren.

Eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, bonuen kanpainan atxikitako erakunde gisa onartu edo baztertu dela jakinaraziko da, emandako posta elektronikoaren bidez.

Baimena eman duten beste kanpaina instituzional batzuetara atxikitako erakunde edo establezimenduak programa honetan sartutzat joko dira, baldin eta programa honek ezarritako baldintzak onartzen badituzte eta deialdi honetan eskatutako dokumentazioa aurkezten badute; beraz, ez dute eskabidea aurkeztu beharrik izango, atal honetan adierazitako baldintzetan, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 53.1.d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

### **Kanpainan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea:**

Establezimenduak eta enpresak oinarriak BAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera atxiki ahal izango dira. Atxikitzeke eskabideak aurkezteko epea irekita egongo da programak irauten duen bitartean.

## **8. BONUEN EZAUGARRIAK ETA ERABILERA-BALDINTZAK**

### **Bonuak erostea:**

Herritarrek bonuak digitalki eskuratu ahalko dituzte Bilbao Ekintzak prestatutako web-plataformaren bidez. Bertara sartzeko esteka [www.bonobilbao.eus](http://www.bonobilbao.eus); banku-erakunde elkartuaren kutxazain hauetan ere eskuratu ahalko dituzte: <https://portal.kutxabank.es/cs/Satellite/kb/es/negocios/oficinas-y-cajeros>.

Erosten diren unean ordaindu beharko dira bonuak, eta erosteko ordainketa-sistema kreditu- edo zordunketa-txartelaren eta/edo aipatutako erakundearen ordainketa-pasabidean onartutako beste edozein ordainketa-bide elektronikoren bidez egingo da.

Bonuak programa indarrean dagoen bitartean erosi ahal izango dira, baldin eta finantzatzeko kreditu nahikoa badago.

### **Bonuen trukea:**

Kanpainari atxikitako entitateen establezimenduetan trukatuko dira bonuak. Eguneratutako zerrenda webgunean argitaratuko da: [www.bonobilbao.eus](http://www.bonobilbao.eus)

Erabiltzaileak bonuaren QR kodea aurkeztu beharko du edo, hala badagokio, erosketa egingo duen establezimenduan inprimatutako bonuak entregatu.

Erosketa-tiketaren zenbatekoa bonuarena berdina edo handiagoa izan behar da, erosketa eta/edo kontsumizio-aldi bakoitzean oso-osorik agortzeko modukoa.

Edonola ere, ezin izango da dirua eskudirutan itzuli erosteko unean eta erositako produktua itzultzea erabakitzen bada ere.

Erosketa-tiket bakoitzeko, gehienez ere, BILBOKO BONUen lau ale erabili ahal izango dira.

BILBOKO BONUAK beste administrazio batzuek eskaintzen dituzten beste bonu batzuekin izango dira bateragarriak; beraz, tiket bakarreko erosketan pilatu ahal izango dira.

Nolanahi ere, ematen den dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza eta gainerako diru-sarrerekin batera, ezin izango du diruz lagundutako erosketaren balioa gainditu.

**Muga:**

Establezimendu bakoitzeko bonuaren muga 30.000,00 euro da. Muga hori handitu ahal izango da, baldin eta eskariaren egoerak hala gomendatzen badu, ahalik eta bonu gehien banatu ahal izateko.

**Nola egin bonuen likidazioa Udalarekin.**

Likidatzeko orduan, atxikitako entitateak plataformaren bitartez erregistratu beharko dituzte bonuak eta dagokien salmentaren tiketa edo faktura.

Bilbao Ekintzak astero ordainduko dio establezimenduari (trukea hasi eta 15 egunera gutxi gorabehera egingo den lehen sortan izan ezik) ordura arte aurkeztutako bonuen zenbatekoa; emandako kontu korrontearen zenbakian banku-transferentzia bat egingo du.

Bilbao Ekintzak, laginketa-tekniken bidez, bonuen aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten frogagiriak egiaztatuko ditu. Horretarako, aipatutako frogagiriak bidaltzeko eskatuko dio atxikitako erakundeari.

**9. PROGRAMA OSATZEN DUTEN ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK****Onuradunen eskubideak eta betebeharrak:**

Konsumitzaile batek bonuak erosiz gero, dokumentu honetan jasotzen diren kanpainako baldintzak onartuko ditu.

Onuradunek erosten dutenean ordainduko dute bonuaren zenbatekoa, eta atxikitako establezimenduetan nahiz enpresetan trukatu ahal izango dituzte adierazitako muga-eguna baino lehen.

**Atxikitako establezimenduen eskubideak eta betebeharrak:**

Establezimendu batek bonuen kanpainarekin bat egiten badu, oinarriak onartu dituela joko da, bai eta oinarrietan ezarritako konpromisoak bere gain hartzen dituela ere. Hori dela eta, Bilbao Ekintzak egiten dituen egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak onartuko ditu, eta horiek egin ahal izateko eskatzen zaion informazio guztia aurkeztuko du.

Atxikitako erakundeek konpromisoa hartzen dute kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri emateko, bai eta programaren publizitate-materialak establezimenduan erraz ikusteko moduko lekuan hartzeko eta jartzeko ere, eta kendu egin beharko dute deialdi honetan adierazitako establezimendu bakoitzeko bonuen mugara iritsi ondoren.

Establezimenduak bonua onartuko du tiketa ordaintzeko ordezeko gisa, erosketa osorik edo zati batean ordaintzeko, eta une oro errespetatu beharko ditu bezeroari tratatzeko berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak. Hori horrela, programa indarrean dagoen bitartean, ezin izango da bonuaren programa ezkutatu edo bonua erabiltzeko eskubidea ukatu.

Atxikitako entitateek bonuen egiazkotasuna eta baliagarritasuna egiaztatzeko konpromisoa hartuko dute, eta haiek izango dira Bilbao Ekintzaren aurrean bonua baliogarria izateko beharrezkoak diren zenbatekoen erosketa-tiketa edo -faktura egiaztatzeko eta justifikatzeko arduradunak.

Kontsumitzaileei ez zaie inola ere eskudirutan itzuliko erosketaren zenbatekoaren eta BILBOKO BONUaren balioaren arteko aldea, ez erosteko unean, ez erositakoa geroago itzultzen bada ere.

Kontsumitzaileak bonua erabili ondoren, entitatea baino ez da izango bonua ondo kudeatzearen arduraduna, eta salmentaren tiket edo faktura egokiarekin batera aurkeztu beharko du plataforma elektronikoaren bitartez, Udalean behar bezala likida dadin.

## **10.- INTERPRETAZIOA**

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdia funtsean aldatzen ez duen punturen bat garatu, aldatu, egokitu edo ezabatu behar bada, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzari emango zaio aldaketa horiek egiteko eskumena. Ondoren, horren berri emango dio administrazio-kontseiluari, aldaketak egin eta deitzen den lehenengo bileran.

## **11. LEGERIA APLIKAGARRIA**

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa beteko da:

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (BAO, 2016ko uztailaren 20koa).
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta gainerako araudi osagarria.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, I. titulua.
- 39/15 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/15 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.